

# KONFIANTZAREN PEDAGOGIA 0-6 HAUR HEZKUNTZA

## ZER DA KONFIANTZAREN PEDAGOGIA?

Konfiantzaren pedagogiak garatzeko eta **ZORIONTSU** izateko behar duen guztiaz hornitutako gizaki moduan ikusten du pertsona. Hezitzailearen eta ingurunearen eginkizuna **konfiantza** ematea da, bere buruaz fio dadin eta ondorioz, modu ezin hobean garatzeko aukera izan dezan.

## NON DU JATORRIA?

**Rafael Cristobal doktoreak erabili zuen lehen aldiz termino hori EL NIÑO EN LA MIRADA DEL CONOCIMIENTO. UNA PEDAGOGIA DE LA CONFIANZA liburuan.** Arrasateko Arizmendi ikastolan jaio zen konfiantzaren pedagogia, 2008. urtean. Geroztik, hainbat ikastetxek erabaki dute ibilbide berean abiatzea: Tolosako Laskorain Ikastola, Zumaiako Zumaiena Ikastetxea...

## ZEINTZUK DIRA PEDAGOGIA HONEN ILDO NAGUSIAK?

### HAURRA NORBANAKO BEZALA GARATZEA.

Umea bere osotasunean garatzea. Haurrak era autonomoan garatzeko gaitasuna du eta gaitasun honetan konfiantza izatea da pedagogia honen ardatz nagusia. Beste gako bat, umearen erritmo biologikoekiko, kognitiboekiko eta emozionalakiko errespetua da.

### ADIN EZBERDINETAKO HAURREN ARTEKO HARTU-EMANA

Elkarrekiko interakzioan batzuk besteengandik ikas dezaten.

### ESPazio FISIKOAREN BERRANTOLAKETA

Espazioaren antolaketak umearen garapen integralean duen garrantziaz jabetzea.

Haurren garapenari egokitutako espazio irekiak.

### FAMILIAK ETA IKASTETXEA, BAT EGINDA HEZTEN

Familia eta eskola direlako haurren heziketaren zimenduak. Hezkuntzaren arrakastaren oinarrian eragile desberdinen



 **salestarrak**  
Floreaga Ikastetxea



IKT-n heldutasun-maila  
AURRERATUA duen ikastetxea

2020-21



Idazkaritza ordutegia:  
09:00 - 13:00 / 15:00 - 18:00

Tlfnoa: 943 85 30 43

E-mail: [floreaga@floreaga.eus](mailto:floreaga@floreaga.eus)

Web orria: [www.floreaga.eus](http://www.floreaga.eus)



Haur Eskola 0-3